A4339

# 24 actuaciones para modernizar y fortalecer Alza



Reforma urbanística de la zona de Nerecán

# 24 ekimen Altza modernizatzeko eta indartzeko

ALKATEGOA ALCADIA

**Donostiako Udala**
**Ayuntamiento de San Sebastián**









# Alza











**Odón Elorza**
Donostiako Alkatea
Alcalde de San Sebastián

## Revitalizar y apostar por **Alza**

## **Altza** biziberritu eta auzoaren alde apustu egitea

El Barrio de Alza es el único que en 22 años de democracia municipal no ha experimentado un proceso decisivo de modernización. Todos los demás (Intxaurrondo, Amara, Gros, Egia, Antiguo, Parte Vieja...), han crecido y han incorporado nuevos atractivos.

El proyecto del Ensanche de Alza es la oportunidad para revitalizar un barrio que tiene una orografía difícil, con un urbanismo fruto de la especulación y del concepto de ciudad dormitorio. Pero eso tiene que cambiar.

El nuevo Ensanche de Alza es toda una apuesta para que el barrio mejore incorporándole espacios, plazas y calidad, con nuevos viales que conecten con una variante sin peaje, con equipamientos y zonas verdes, con viviendas de VPO (el 85%) en edificios de 6 alturas.

Pretendemos rejuvenecer Alza, darle vida, diseñar una magnífica avenida con plazas peatonales, miradores con vistas y parques como el de Miravalles de 40.000 m$^2$.

El proyecto de Auditz-Akular también conserva caseríos, la regata de Molinao, y diseña un urbanismo amable, humano, sin torres ni cuestas ni calles laberínticas. ¡Infórmate bien!

Nada menos que 24 actuaciones acompañan al proyecto urbanístico del Ensanche para ilusionar a los vecinos y darles protagonismo en el debate y en las decisiones del Plan Comunitario presentado por el Alcalde a todos los colectivos en Casares el día 19 de diciembre pasado.

Confío en que con el apoyo de todos los vecinos hagamos realidad esta intervención estratégica para Alza.

Udal demokratikoak hasi eta 22 urteko aldi honetan Altza auzoa dugu gaurkotze muntadunik izan ez duen bakarra. Gainerako guztiak (Intxaurrondo, Gros, Egia, Antiguoa, Parte Zaharra...) hazi ez ezik, erakargarri batzuez jabetu ere dira.

Altzako Zabaldura aukera ederra da orografia gaitzeko auzo hau biziberritzeko, hango urbanismoak aurrekari baititu espekulazioa eta lo auzunearen kontzeptua. Baina hori guztia errotik aldatu beharrekoa da.

Altzako Zabaldura berria apustu ederra da auzoa hobetzearen alde, honako hauek gehituko baitzaizkio: guneak, plazak, kalitatea, bide berriak (bidesaririk gabeko saihesbideari lotzeko) egin, ekipamenduak, lorategiak, babes ofizialeko etxebizitzak (%85) sei solairuko eraikinetan...

Altza gaztetu nahi dugu, bizia erantsi, hiribide bikaina diseinatu, oinezkoentzako plazak, begiratokiak eta parkeak (esaterako, Miravalles: 40.000 m$^2$) jarri.

Auditz-Akular deritzon proiektuak baserri batzuk eta Molinao errekastoa ere gordeko ditu, urbanismo atsegin eta gizakiaren neurrikoa diseinatuta, ez aldaparik, ez labirinto itxurako kalerik gabea. Eskura ezazu informazio egokia!

Zenbat eta 24 hirigintza ekimen daramatza lagun Zabaldurako proiektuak, auzokoak ilusioz betetzeko eta horiei protagonismoa emateko bai eztabaidan, bai joan zen abenduaren 19an Alkateak Kasares kultur etxean auzoko taldeei aurkezturiko Plan Komunitarioan.

Zinez espero dut auzokide guztien laguntza dugula Altzarako estrategi interbentzio hori gauzatzea.

## 1] Parque de Larratxo Parkea

> La recuperación del Parque de Larratxo, como un gran "pulmón verde" para el barrio de Alza, ha sido uno de los objetivos que se marcó el Ayuntamiento donostiarra como un compromiso más con los ciudadanos y el propio Parque de Lau Haizeta.

> Se trata de una actuación que en estos momentos se halla en proceso de ejecución y que representa la creación y puesta en valor de un amplio espacio natural con áreas para el esparcimiento, el recreo y el paseo, y que va a dotar a la zona de un magnífico lugar para el ocio de los vecinos.

> El coste de esta actuación ha ascendido a 701.943 euros (116.796.296 de pesetas). Las mejoras introducidas incluyen también el acceso de entrada al Parque, por el túnel bajo la autopista en Larratxo, para lo que se han destinado además 216.400 euros (36 millones de pesetas).

> Larratxoko parkea Altzako 'birika berdea' izateko berreskuratzea Donostiako Udalak herritarrekin eta Lau Haizetako parkearekin hartutako konpromiso bat gehiago da, eta, alde horretatik, helburu garrantzitsutzat jarrita daukana.

> Egiten hasita gauden ekimen bat da Larratxoko parkea berreskuratzearen hau, eta, bukatutakoan, bere balioa berreskuratuko duen gune natural handi bat izango dugu, jolas egiteko, lasai egoteko nahiz paseatzeko toki egoki bat, batez ere inguruko bizilagunentzat.

> Berreskuratze lan hauek 701.943 euro (116.796.296 pezeta) kostatuko dira. Dena dela, parkeko sarbidea hobetzea ere jasotzen dute berreskuratze lanek. Autobidearen azpitik izango da eta beste 216.400 euro (36 milioi pezeta) joko dute.







## 2] Boulevard del Paseo de Lau Haizeta Pasealekua

> Se va a proceder a la construcción de un Boulevard que va a conectar el Casco de Alza con Lau Haizeta, así como con el camino a Garbera. El objetivo es mejorar una acera muy utilizada en la actualidad por los vecinos del barrio, haciéndola más cómoda y agradable junto al Parque de Larratxo.

> Las obras han sido adjudicadas el pasado mes de febrero con un presupuesto que asciende a 553.594 euros (92.110.369 pesetas). El plazo de ejecución de las mismas es de tres meses.

> Bulebarra egingo dugu Altzako hirigunearen eta Lau Haizetaren artean nahiz Garberako bidean. Helburua auzotar askok erabiltzen duen espaloi zati bat hobetzea da, erosoago eta atseginago eginez, Larratxoko parkearekin batera.

> Obrak otsailean emanda daude, eta 553.594 euro (92.110.369 pezeta) joko dute. Hiru hilabete izango dira obra hauek bukatzeko.



## 3] Avda. José Elosegui Etorbidea

> Se está procediendo a la reparación de la acera, en el lado de los números pares, en el tramo comprendido entre el Alto de Miracruz y el barrio de La Herrera.

> El coste de las obras, que se hallan en ejecución, asciende a 57.700 euros (9.600.000 pesetas).

> Bikoitien aldeko espaloia konpontzen ari gara, Mirakruz gainaren eta Herrera auzoaren bitarteko zatia.

> Hasita daude egiten, eta 57.700 euro (9.600.000 pezeta) kostatuko dira.



## 4] Centro de Nuevas Tecnologías / Teknologia Berrien Etxea

> El Ayuntamiento ha adjudicado en marzo las obras de reforma del Centro Cívico de Larratxo, con el fin de habilitar parte de las instalaciones a un Centro de Nuevas Tecnologías de la Información y el Conocimiento (TIC´s), que pueda ser utilizado por todos los ciudadanos. El nuevo espacio estará dotado de terminales de ordenador, conexiones a internet, etc., y en el mismo se impartirán cursos de aprendizaje y formación.

> Las obras de reforma del Centro Cívico de Larratxo ascienden a 201.500 euros (33.526.862 pesetas) y los equipamientos tecnológicos tienen un coste de 420.708 euros (70.000.000 de pesetas).

> Las obras de reforma en el Centro Cívico concluirán en un plazo de dos meses y el Centro de Nuevas Tecnologías estará listo para el curso que viene en el otoño.

> Martxoan eman ditugu Larratxoko Gizarte Etxea konpontzeko obrak, eta hor izango da Informazioaren eta Jakintzaren Teknologia Berrien Etxea ere, herritar guztiek erabiltzeko moduan. Ordenadoreak, Interneten ibiltzeko lotuneak, eta abar izango dira; ikasketa eta prestakuntza ikastaroez gainera.

> Larratxoko Gizarte Etxea konpontzeko obrak 201.500 euro (33.526.862 pezeta) kostatuko dira, eta beste 420.708 euro (70.000.000 pezeta) ordenadore eta gainerako hornikuntza teknologikoak.

> Gizarte Etxea bera bi hilabetean prest izango da, eta udazkenerako Teknologia Berrien Etxea, datorren ikasturterako.

## 5] Reformas en Colegios Públicos / Ikastetxe publikoak berritzea

> El Ayuntamiento donostiarra viene acometiendo numerosas operaciones de reforma en los centros escolares públicos de Alza. Entre las intervenciones más importantes de los ejercicios 2001-02, se hallan la renovación completa de cubiertas en Altza Ikastetxea, por un importe de 342.411 euros (56.973.686 pesetas); la renovación de aseos en el Colegio Público de Herrera, con un coste de 135.834 euros (22.600.900 pesetas); o la sustitución de ventanales de fachadas y otros elementos en el Colegio Público de Oleta, con un coste de 58.098 euros (9.666.908 pesetas).

> Berrikuntza lan asko ari da egiten Donostiako Udala Altzako ikastetxe publikoetan azkenaldi honetan. Hona 2001-02 ekitaldiko ekimenik garrantzitsuenak: Altza Ikastetxearen teilatua erabat berritzea, 342.411 euro (56.973.686 pezeta) kostatuko dena; Herrerako herri-ikastetxeko komunak berritzea, 135.834 euro (22.600.900 pezeta) kostatuko dena; edota Oleta herri-ikastetxeko fatxadako leiho berriak jartzea, 58.098 euro (9.666.908 pezeta) kostatuko dena.



## 6] Parking de Larratxo Aparkalekua

> Se ha iniciado la construcción de un edificio de aparcamientos de 200 plazas -cerradas (116) y abiertas (84)-, así como una plaza pública con juegos infantiles en la terraza.

> La obra incluye también, además de la urbanización en superficie, la construcción de un muro sustentador del vial público separado del muro estructural del edificio.

> El coste total de la actuación es de 2.926.929 euros (487.011.716 pesetas) y el plazo de ejecución de doce meses.

> El precio de las plazas oscilará alrededor de 13.500 euros (2.250.000 pesetas) los cerrados; y de 10.800 euros (1.800.000 pesetas) los abiertos, dependiendo de cuál de las cinco plantas del aparcamiento se trate.

> Hasita gaude 200 automobilentzako tokia izango duen eraikin bat egiten. Berrehun garaje horietako 116 itxiak izango dira, eta 84 irekiak. Eraikinaren gainean, terrazan, nolabait esan, haurrentzako jolasak izango dira.

> Eraikina egiteko obrekin batera, ondoko bideari eusteko horma bat ere egingo da, eraikinaren hormaz aparte, eta gaina urbanizatu ere bai.

> Lan hauek 2.926.929 euro (487.011.716 pezeta) joko dute, eta hamabi hilabetean eginda izan behar dute.

> Garajeen prezioak 13.500 euro (2.250.000 pezeta) eta 10.800 euro (1.800.000 pezeta) bitartean ibiliko dira. Garestienak itxiak izango dira, nahiz eta solairu batetik bestera ere aldeak izango diren prezioan.







## 7] Residencia de Berra
## Berrako egoitza

> Construcción de una Residencia para la atención a personas mayores dependientes, un Centro de Día y Apartamentos Sociales en régimen de alquiler para personas mayores sin ingresos ni patrimonio, en Berra, en el Alto de Buenavista.

> El Ayuntamiento quiere favorecer la atención de servicios residenciales para contribuir a reducir la lista de espera de las personas mayores y garantizar una cobertura de plazas públicas a personas de escasos recursos económicos.

> La Residencia dispondrá de 120 a 140 plazas y el Centro de Día entre 20 y 40 plazas. Los Apartamentos Sociales contemplan habitaciones individuales y dobles.

> El presupuesto para la construcción de todas las instalaciones será de 7.210.000 euros (1.200 millones de pesetas).

> Egoitza bat eraiki behar dugu Berran (Buenavista gainean) beren kasa baliatzeko gauza ez diren adineko pertsonei kasu egiteko, eta baita eguneko zentro bat eta apartamentu sozial batzuk ere dirurik eta ondarerik ez duten pertsonei errentan emateko.

> Udalaren asmoa egoitza zerbitzuak handitzea da, itxoin zerrendak murriztu eta diru gutxiko pertsonentzako plaza publikoak izatea bermatzeko.

> Egoitzak 120-140 lagunentzako tokia izango du, eta eguneko zentroak 20-40rentzako. Apartamentu sozialak bi eratakoak izango dira, pertsona batentzakoak eta birentzakoak.

> Egoitza egiteko aurrekontuak 7.210.000 euro (1.200 milioi pezeta) joko du.



## 8] Unidad de Base de Bienestar Social
## Gizarte Ongizateko Oinarrizko Unitatea

> El pasado verano fue inaugurada la nueva Unidad de Base de Bienestar Social en Larratxo.

> El Ayuntamiento reformó completamente el local existente, con nuevas ubicaciones para el personal, rehabilitando y humanizando el servicio, haciéndolo más amable, y con la dotación de un salón de actos.

> El coste de la actuación ascendió a 156.263 euros (26 millones de pesetas).

> Joan den udan inauguratu genuen Larratxoko Gizarte Ongizateko Oinarrizko Unitatea.

> Lehengo lokala goitik behera berritu, langileentzako toki berriak prestatu, zerbitzua birgaitu eta humanizatu, atseginago eginez, eta ekitaldi areto bat ere jarri dugu.

> Lan horiek denak 156.263 euro (26 milioi pezeta) kostatu ziren.





## 9] Tenencia de Alcaldía de Alza
## Altzako Alkateordetza

> La Comisión de Gobierno del Ayuntamiento acaba de adjudicar en marzo las obras de reforma de la Tenencia de Alcaldía de Alza, lo que va a permitir una mejor atención al público al ser más accesibles las oficinas, con una orientación que posibilitará una atención integral (estarán situadas en la planta de calle), y con una ampliación y mejora de los accesos especialmente para personas con minusvalías.

> La reforma tiene un plazo de ejecución de tres meses y el importe de la intervención asciende a 75.916 euros (12.631.703 pesetas).

> Martxoan bertan eman ditu Gobernu Batzordeak Altzako Alkateordetza berritzeko lanak. Lan horiei esker zerbitzu integrala eman eta herritarrei hobeto kasu egiteko bidea izango dugu, kalearen mailan izango direlako bulegoak eta, beraz, jo-bide hobeak izango dituelako, pertsona elbarrientzat batez ere.

> Obrak egiteko hiru hilabete izango dira. Aurrekontua: 75.916 euro (12.631.703 pezeta).



## 10] Hogar del Jubilado
## Zaharren egoitza

> Con el fin de adecuar el Hogar del Jubilado de Alza a las necesidades del mismo y a la labor que desempeña, el año pasado se procedió a acondicionar el local y se desarrolló una obra de aislamiento acústico.

> El coste de la actuación ascendió a 30.000 euros (5.000.000 de pesetas).

> Altzako Zaharren Egoitzak dituen beharrei eta egiten dituen ekintzei erantzun asmoz, lokala egokitu eta isolamendu akustikoari ekin genion.

> Lan horiek 30.000 euro (5.000.000 milioi pezeta) kostatu ziren.

## 11] Auditz Akular

> El Ensanche moderno de Alza es un proyecto para la construcción de 3.000 viviendas, el 85% de ellas (2.500) de protección oficial. Se trata de un operación residencial que reúne las condiciones para un desarrollo amable y de calidad, con muchos espacios verdes, amplias avenidas, áreas peatonales y con la conservación de caseríos.

> El Ayuntamiento donostiarra ha destinado 12,5 millones de euros (2.080 millones de pesetas) en la compra de terrenos en Auditz Akular, para hacer un barrio mejor, más moderno y atractivo.

> El desarrollo del planeamiento incluye también un tercer enlace viario para Alza, parques y nuevos equipamientos como el Parque de Miravalles (40.000 m²), Parque de Barona (20.000 m²), Parque de Auditz Akular, la ampliación de los terrenos del Instituto, del Colegio Público Oleta y otros equipamientos públicos (80.000 m²), así como el Parque Empresarial de Landarro. Un total de 57 hectáreas de suelo residencial y 28 has. de parque urbano.

> En la zona de viviendas se sitúan 2.000 viviendas en los lados de una gran avenida de 1.500 metros de longitud. Los edificios en forma de "U", con plazas públicas abiertas peatonales, tendrán seis alturas (bajo + 5 + ático), las alturas de Venta Berri. El resto de los edificios será de dos y tres alturas.

> Auditz Akular Altzaren Zabalpen modernoa da. Hiru mila etxebizitza izateko bidea ekarriko duen proiektua, 2.500 (%85) babes ofizialekoak. Garapen atsegina eta kalitate handikoa izateko baldintzak betetzen dituen eragiketa izango da, gune berde asko, hiribide zabalak eta oinezkoentzako aldeak ere izango dituena eta dauden baserriei eutsiz egingo dena.

> Azkeneko urte hauetan 12,5 milioi euro (2.080 milioi pezeta) sartu du Udalak Auditz Akularren lurrak erosi eta auzo hobe bat, modernoagoa eta erakargarriagoa, izateko.

> Etxeekin batera, bideak ere izango dira, eta, hala, Altzara sartzeko beste bide bat (hirugarrena) egingo da. Eta baita parke berriak ere: Miravelleseko parkea (40.000 m²), Baronako parkea (20.000 m²) nahiz Auditz Akularreko parkea. Era berean, Institutuko zelaiak zabaldu, Oleta herri-ikastetxekoak ere bai eta beste ekipamendu publiko batzuk ere izango dira (80.000 m² hartuta horretarako), betiere Landarroko enpresa parkea ere ahaztu gabe. Guztitara, beraz, 57 ha izango dira etxeak egiteko eta 28 ha hiriko parkeak egiteko.

> Egin behar diren hiru mila horien arteko 2.000 kilometro eta erdiko hiribide handi baten bi aldeetan izango dira. "U" itxurako eraikinek plaza irekiak eratuko dituzte, eta sei altuerakoak izango dira (behea + 5 solairu + ganbara), hau da, Benta Berriko etxeek duten altuera berbera. Gainerako etxeak bi edo hiru altuerakoak izango dira.

VIVIENDAS NUEVAS
POLÍGONO INDUSTRIAL
EDIFICIOS DE EQUIPAMIENTOS



# 12] P.E.R.I. de La Herrera
## Herrerako BEPB

> El pasado 28 de febrero, el Ayuntamiento aprobó en sesión plenaria la modificación del Plan General de Ordenación Urbana referida al área de intervención urbanística de La Herrera.

> El objetivo de la modificación ha sido redefinir el viario previsto para la zona con un nuevo trazado más razonable, en el que destacan las ventajas de su total acercamiento a la red ferroviaria de Renfe y a la variante de la CN-1.

> El desarrollo del Plan Especial de Reforma Interior (P.E.R.I.) de La Herrera contiene la ordenación de 326 viviendas, de las cuales 126 son de protección oficial (VPO): 92 viviendas en Rutilita, 40 en la Plaza de San Luis, 96 en la zona industrial de Ramón Vizcaino y 98 en la vaguada y en la calle Bersolari Txirrita.

> Con esta actuación, La Herrera obtiene también 11.000 metros cuadrados de espacios libres, plazas y parques, y una importante dotación de plazas de aparcamiento subterráneo y en superficie.

> Durante el año 2003 se van a acometer dos actuaciones en el viario que incluyen el nuevo paso bajo el puente ferroviario en el Paseo de La Herrera, con doble vía en todo su trazado, y una glorieta en la intersección de la subida a Larratxo y salida hacia la variante. El P.E.R.I. permitirá mejorar el viario de Alza sin interferir en La Herrera.

> Para prevenir y mejorar los problemas que se suscitan con las inundaciones, se van a invertir también 6.300.000 euros (1.050 millones de pesetas).

> Joan den otsailaren 28an, Udalak, osoko bilkuran, Hiri-Antolamendurako Plan Orokorra aldatzea erabaki zuen, Herrerako hirigintza-jarduerako eremuari zegokionez.

> Aldaketa honen helburua eremu honetan egitekoa zen bide-sarea egokitzea izan da, sare horrek ibilbide zentzuzkoagoa izan dezan. Aldaketa honek ekarriko dituen abantailen artean, Renfeko trenbidetik eta CN-1 saihesbidetik gertuago egotea nabarmentzen da.

> Herrerako Barne Erreformarako Plan Bereziaren (BEPB) garapenaren bidez 326 etxebizitza eraikiko dira. Hauetatik 126 babes ofizialekoak: 92 etxebizitza Rutilitan, 40 San Luis plazan, 96 Ramón Vizcaino inguruko industrialdean eta 98 ibarbidean eta Txirrita bertsolariaren kalean.

> Jarduera honen bidez, Herrerak 11.000 metro koadroko azalera lortuko du plaza eta lorategietarako, eta lurpeko eta lur gaineko aparkaleku ugari egingo dira halaber.

> 2003ko urtean zehar, bi jarduera egingo dira Herrerako bide-sarean: Herrera pasealekuko trenbidearen zubiaren azpian igarobide berria zabalduko da, eta bide bikoitza izango du honek bere ibilbide osoan; horrekin batera, biribilune bat jarriko da Larratxora igotzeko bidearen eta saihesbidearen arteko elkargunean. BEPBari esker Altzako bide-sarea hobetu egingo da Herrerari oztoporik sortu gabe.





# 13] Colector de Herrera
## Herrerako kolektorea

> El Colector estará integrado en el nuevo vial de conexión de Alza-Herrera con la Variante y va a permitir que el barrio de La Herrera, en especial la plaza de San Luis, deje de ser un espacio propicio para las inundaciones.

> El nuevo viario acompañará a los colectores que recogen las aguas pluviales de la regata de Txingurri, separadas de las residuales, trasladándolas desde la Plaza de San Luis hasta el puerto de Pasaia.

> El Colector se sitúa bajo el nuevo vial de conexión de los dos accesos viarios del barrio de Alza y el coste total de la obra requiere una inversión pública de 6.000.000 de euros (1.000 millones de pesetas).

> Kolektorea Altza-Herrera eta saihesbidea lotzen dituen elkartze-bide berrian txertatuko da, eta lan honi esker, Herrerako auzoan, San Luis plazan bereziki, uholdeak sortzea eragotziko da.

> Bide berria Txingurri ubideko euri-urak hondakin uretatik bereizita biltzen dituen kolektoreen ondoan joango da, eta San Luis plazaren gainetik Pasaiako porturaino eramango ditu ur horiek.

> Kolektorea Altza auzorako bi sarrerak elkartzen dituen bidearen azpian egingo da, eta lan horrek 6.000.000 euroko inbertsioa (1.000 milioi pezeta) eskatuko du guztira.





## 14] Reforma urbanística de la zona de Nerecán
## Nerecán inguruko eremuaren hirigintza-erreforma

> La actuación urbanística de Lardi-Alde le da a Alza el "corazón" del que carece, ya que el área central del barrio está ocupada actualmente por la herida que supone la cantera de Jolastokieta y por las actividades industriales de Nerecán.
> Las nuevas comunicaciones viarias y peatonales permitirán un mejor acceso a Alza. El convenio de Lardi-Alde contempla la cesión adelantada de suelo para realizar de inmediato el vial entre Arria y Elizasu.

> Se crea una gran plaza verde con 10.000 metros cuadrados (que acabará siendo la mayor de la ciudad) y una nueva calle que mejorará la movilidad rodada y peatonal, además de un gran aparcamiento en superficie. Debajo de la plaza, hasta el fondo actual de la cantera, surgirá un complejo de actividades comerciales, equipamientos y aparcamientos para los vecinos.

> La reforma supone también la construcción de 354 nuevas viviendas, de las que 71 serán de protección oficial (VPO), 35 de precio tasado (VT) y 248 de precio libre (VL).

> Lardi-Aldeko hirigintza-jarduerari esker, ez duen "bihotza" izango du Altzak, auzo honen erdigunea Jolastokietak eragiten duen zauriak eta Nerecáneko industria-jarduerek betetzen baitute gaur egun.

> Bide-komunikazio berriei esker, bai ibilgailuenak bai oinezkoenak, Altza hobeto lotuta egongo da. Lardi-Aldeko hitzarmenean finkatutakoari jarraiki, lurrak lehenago utziko dira, Harria eta Elizasuren arteko bidea berehala egiten hasteko.
>10.000 metro koadroko plaza berde handi bat sortuko da (hiriko handiena izango dena azkenean), eta kale berri bat ere bai. Horri esker hobetu egingo da ibilgailuen eta oinezkoen higikortasuna, eta lur gaineko aparkaleku handi bat egingo da. Plazaren azpian, gaur egun harrobiak hartzen duen eremuaren hondoraino, merkataritza-jardueretarako, ekipamendu eta aparkalekuetarako eremu zabala sortuko da.

> Erreforma honen barruan, 354 etxebizitza eraikiko dira, hauetako 71 babes ofizialekoak, 35 salneurri finkokoak eta 248 salneurri librekoak.



## 15] Polideportivo Altza Kiroldegia

> El Ayuntamiento va a proceder a realizar diferentes obras de reforma en el Polideportivo de Alza con la reparación de los techos de la instalación, los suelos de las piscinas, cambios de puertas y la creación de nuevos vestuarios en el sótano.
> También se va a renovar el entorno exterior, para lo que se cambiará la valla metálica que rodea al Polideportivo.
> El coste de las reformas ascenderá a 204.340 euros (34 millones de pesetas).

> Udalak hainbat lani ekingo dio Altzako kiroldegia berriztatzeko: instalazio honetako sabaiak eta igerilekuetako lurra konpondu, ateak aldatu eta aldagela berriak jarriko dira sotoan.

> Kiroldegiaren ingurunea ere berritu egingo da, eta horretarako kiroldegia inguratzen duen metalezko hesia zabaldu eta aldatuko da.
> Erreforma-lan hauen kostua 204.340 eurokoa izango da (34 milioi pezeta).



## 16] Campo de Fútbol de La Herrera Futbol-zelaia

> El histórico campo de fútbol de Herrera viene experimentando diferentes intervenciones de mejora de sus instalaciones y recientemente se ha procedido a la sustitución del campo de hierba artificial, en una actuación que ha tenido un coste de 180.300 euros (30 millones de pesetas).

> Herrerako futbol-zelai historikoko instalazioetan hainbat hobekuntza-lan egin dira, eta orain dela gutxi zelai artifizialeko belarra aldatu da. Jarduera honek 180.300 euroko kostua izan du (30 milioi pezeta).





# 17/18] Plan Urban y Plan Izartu
## Urban eta Izartu planak

> El Ayuntamiento viene abordando en Alza, tal y como recogemos en esta publicación, numerosos proyectos de mejora con la intención de cambiar la fisonomía del barrio, en un compromiso firme de acometer acciones de recuperación urbanística y de rehabilitación integral que permitan elevar sustancialmente la calidad de vida.

> Para ello, se ha abierto una línea de ayudas a proyectos municipales, que pretende la revitalización urbana de Alza, con la puesta en marcha de los Planes Urban e Izartu y también con la tramitación del Plan Especial de Reforma Interior (P.E.R.I.).

> El Plan Urban y el Plan Izartu permitirán, entre otras acciones, una mejora de la accesibilidad a Alza con un nuevo viario; un amplio programa de relocalización industrial; la rehabilitación del patrimonio edificado; una mejora básica en las infraestructuras básicas locales, ordenación y rehabilitación; una mejora del medioambiente y de los espacios libres para una mejor integración social; una reforma integral de espacios públicos; un Plan de Desarrollo Comunitario; infraestructuras de saneamiento; la revitalización de la regata de Molinao; y nuevos medios de capacitación y plataformas que posibiliten abrirse paso en el mercado actual.

> La estimación económica global para todas estas intervenciones asciende a 27 millones de euros (4.500 millones de pesetas).

> Donostiako Udala lan dezente ari da egiten Altzan; argitarapen honetan ikus daitekeenez, auzoaren itxura aldatu, hirigintza aldetik berreskuratu eta birgaitze osoa lortzeko, auzotarren bizikalitatea hobetzea azken jomugatzat dugula.

> Hala, laguntza batzuk eskuratu ditugu Udalak Altzarako dituen proiektuentzat, Altzaren hirigintza birgaitzea lortzeko Urban nahiz Izartu planen bidez, batetik; eta Barne Berrikuntzako Plan Bereziaren bidez, bestetik.

> Urban eta Izartu planekin besteak beste lan hauek egingo ditugu: Altzako jobideak hobetzea, bide berriak eginda; lantegiak beste toki batera eramateko programa handi bat burutzea; eraikitako ondarea birgaitzea; auzoko azpiegiturak hobetzea, berriz antolatu eta birgaituta; ingurugiroa eta gune libreak hobetzea, integrazio sozial hobea izan dadin; gune publikoak osorik berritzea; Komunitate Garapeneko Plana egitea; saneamendu azpiegiturak egitea; Molinao erreka bere onera ekartzea; eta prestakuntzako baliabide eta plataforma berriak jartzea egungo merkatuan bidea irekitzeko modua izan dadin.

> Ekimen horiek 27 milioi euro (4.500 milioi pezeta) joko dute, gutxi gorabehera, dirutan neurtuz gero.



# 19] Plan Comunitario para Alza
## Komunitate plana Altzarako

> Intervención integrada en el territorio. Ante el conjunto de proyectos y actuaciones de todo tipo que se han previsto (27) para ese territorio y que supondrán una profunda transformación y regeneración del barrio, se plantea el desarrollo de un Plan Comunitario para Alza.

> Este proceso de revitalización no se puede hacer de espaldas a los vecinos y a los colectivos existentes. De ahí la necesidad de aplicar una metodología que permita, de forma coordinada e integrada, el protagonismo real de la comunidad en la concertación de las operaciones, tanto urbanísticas como programáticas y de servicios que el Ayuntamiento ha previsto impulsar.

> El trabajo lo realizará un equipo de la Universidad con el Gabinete de Participación Ciudadana.

> Lurraldean integraturiko interbentzioa. Lurralde horretarako proiektaturiko egitasmo eta jardueren multzoa (27), auzoaren eraldaketa eta berritze sakonak ekarriko baititu, Altzarako Plan Komunitario bat garatzea planteatzen da.

> Bizkortze prozesu hori ezin da gauzatu hango auzotarrei eta taldeei bizkar emanda. Horra hor zergatik den behar-beharrezko halako metodologia bat erabiltzea non modu koordinatu eta integratuan benetan protagonismoa emango zaion komunitateari Udalak bultzatu nahi dituen ekintza urbanistikoak, programatikoak eta zerbitzuetakoak kontzertatzerakoan.

> Lana Unibertsitateko talde batek gauzatuko du, Herritar Partaidetzako Kabinetearekin elkarlanean.



## 20] Vial de Txapinene a Casa Nao
## Txapinene-Nao Etxea bidea



> El Ayuntamiento inició en febrero los trabajos de apertura de un nuevo vial, más directo, que permitirá el acceso a través de la calle Txapinene, con el fin de solucionar un problema de acceso a las viviendas de la zona de Casa Nao.
> Concluidas las obras, se procederán a realizar trabajos de jardinería para que los taludes queden con espacios verdes y arbustos.
> El coste de la obra, cuyo plazo de ejecución es de cinco meses, asciende a 390.000 euros (65 millones de pesetas).

> Otsailean ekin zion Udalak bide berri hori egiteari, Txapinene kaletik aurrera sartu eta hainbesteko bueltarik eman beharrik izan ez dadin Nao Etxe aldera jotzeko.
> Bidea egiteko obrak bukatutakoan ezpondetan hasiko gara. Belarra erein eta zuhaixka batzuk sartuko ditugu, bidearen bi aldeak txukun-txukun uzteko.
> Bost hilabete jo ditugu obrak egiteko, eta 390.000 euro (65 milioi pezeta) ordaintzeko



## 21] Vial de Oleta
## Oletako bidea

> La Comisión de Gobierno municipal ha dado luz verde este mes de marzo al encargo del proyecto para la ejecución de las obras de modificación del viario y accesos peatonales al barrio de Oleta.
> De esta manera, se atiende a las peticiones de los vecinos, que dispondrán de una carretera con aceras que se ganarán al terraplén existente. La inversión se acometerá en 2003.

> Martxoan onartu du Gobernu Batzordeak Oleta auzoko kotxe-bideak nahiz oinezkoentzako jobideak hobetzeko obrak egiteko proiektua eskatzea.

> Aintzakotzat hartuko ditugu, beraz, bizilagunen eskakizunak, eta bideespaloi zabalagoak izango dira, orain dagoen malkarrari tokia janda. Hasi, berriz, 2003an hasita izango dira.





## 22] Reforma de Buenavista
## Buenavista berritzea

> El Plan Especial de Reforma Interior (P.E.R.I.) de Buenavista acometerá el derribo de las instalaciones industriales y edificios obsoletos del barrio, y la regeneración urbana del ámbito con viviendas, equipamientos y nuevos espacios públicos.
> Con esta actuación, se construirán 388 nuevas viviendas, 100 de ellas de protección oficial, y se crean nuevos espacios públicos con locales de equipamiento público y una plaza.
> El coste de esta intervención está estimado en 30 millones de euros (5.000 millones de pesetas).

> Buenavistaren Barne Berrikuntzako Plan Bereziari esker, dauden fabrika eta etxe zaharrak bota eta etxe, ekipamendu eta gune publiko berriak eraikiko ditugu.

> Hala, plan horren bidez, 388 etxebizitza berri egingo ditugu (babes ofizialekoak izango dira 100), gune publiko berriak ere izango dira, ekipamendu publikoak jartzeko lokalak eta plaza bat.
> Ekimen horretan 30-bat milioi euro (5.000 milioi pezeta) sartuko ditugu, gutxi gora-behera.

## 23] Convenio de Fomento del Euskara
## Euskara sustatzeko hitzarmena

> El Ayuntamiento y diversos colectivos culturales de Alza han suscrito un plan piloto para el desarrollo del Plan General de Euskara, con el ánimo de dinamizar en el barrio el fomento del euskara.
> Para que la ejecución del Plan gane la mayor eficacia posible, las actuaciones se concentran en los ámbitos sociales (escolares, cultural, de ocio y deporte juvenil), ampliándose en una segunda fase al ámbito laboral, del comercio, hostelería y de servicios, con los agentes sociales participando en las labores de evaluación, contraste y seguimiento.

> Udalak eta Atzako hainbat kultur elkartek Euskara Sustatzeko Plan Orokorra garatzeko plan pilotu bat izenpetu dute, euskara sustatzeko asmoz.

> Plana ahalik eta eraginkorren izan dadin, lehenbiziko ekintzak gizarte alorrekoak izango dira (eskola, kultura, aisia eta gazte kirola hartuko ditu batez ere), eta, ondoren, lana, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak landuko dira; betiere, auzoan diren eragile sozialen partaidetza bermatuz nola planaren garapenean hala ebaluazioan, konparazioan eta jarraipenean.



## 24] Parque Ametzagaña Parkea

> El Parque de Ametzagaña representa una de las fases del futuro Parque periurbano de Lau Haizeta (2004-2010), con una extensión de 37 hectáreas.
> Se procederá a acondicionar como parque la zona ubicada sobre los cuarteles de Loiola, incluyendo el Fuerte de Ametzagaña.
> El presupuesto del encargo de redacción del proyecto asciende a 120.000 euros (20 millones de pesetas).

> Ametzagañako parkea 2004-2010ean izango den Lau Haizeta parkearen beste zati eta ekinaldi bat da, 37 hektarea izango dituena.

> Ekinaldi honetan Loiolako kuartelen gaineko aldea jarriko dugu parke, Ametzagañako gotorlekua ere barruan dela.
> Proiektua idazteko aurrekontua 120.000 euro (20 milioi pezeta) da.



Casa de Cultura
CASARES *(Alza)*
Kultur-Etxea

Exposición / Erakusketa

# *El futuro de Alza*
# *Altzako etorkizuna*

27 DE MARZO - 6 DE ABRIL:
10h. - 14h.
8 DE ABRIL - 23 DE ABRIL:
Lunes a viernes 16h. - 20h.
Sábados 10h. -14h.